

HIRU SENARGAIAK

Jokalariak

BERONIKA
SILBEN
DOMINGO
PETRITO (lauak gazteak dira)

Beronika leiho batetik so dago.

I

Beronika, Silben

SILBEN: Oi zeruko izarren pareko andere pollit maitea, ezin ote ditzaket ukan zure bihotza eta eskua?

BERONIKA: Ez mutiko maitea, ez nintake zurea izan; nik laguntzat nahi dut gizon azkar, zintzo eta deusen beldurrik gabeko bat.

SILBEN: Ni naiz beraz zuk behar duzuna, zure ukaiteko ez dut deus ez nehorren beldurrik, denak garaituko ditut, eta frogatzeko eman iezadazu nahi duzuna egiterat eta eginen dizut.

BERONIKA: Arras ongi da; gaur joanen zara elizarat eta nonbaitik muntatu kutxa bat aldare aintzinean ezarririk, haren barnean egonen zara, hila bezala, bihar goiz arte.

SILBEN: Zuk galdegina eginen dut, ez da segur lan izifarria...

II

Beronika, Domingo

Bigarren mutiko bat, Domingo, agertzen da eta Beronikari:

DOMINGO: Oi, lurreko lorerik ederrenak histen dituzuna, maite zaitut ezin gehiago eta ez naiteke bizi zure aldean, zurekin batean baizik!

BERONIKA: Bihotz berodun gazte maitea, nik ere maite zaitut baina ezin har senartzat gizon azkar, zintzo eta izialdura guziak gainditzen dituen bat baizik.

DOMINGO: Zuk nahi bezalakoa naiz, maitea!

BERONIKA: Eleek ez dute deus erran nahi: zure egintzak erakuts dezadatela nor zaren. Hortakotz, gaur baita elizako aldare aintzinean hil bat bere kutxan, tortxa bat harturik, hea egonen zarenetz bakarrik, belauniko otoitzean haren aldean?

DOMINGO: Hori baizik ez badut egiteko ene kuraiaren frogatzeko, berehala banao.

III

Beronika, Petrito

Hirugarren mutiko bat Petrito heldu da eta Beronikari

PETRITO: Oi, Andere hain maitea nolaz egon naiz egun arte horrelako aurpegi eder goxo maitagarria ikusi eta besarkatu gabe? Luzaz ibili naiz emaztegai bat nahiz: ederrak ba dira, baina zu zara denen erregina eta nahi baduzu ni izanen naiz zure erregea, bizi guziko lamina...

BERONIKA: Bai, gogotik emanen dizkizut ene bihotza, bizia, ene izaite guzia, baina... baina behar didazu erakutsi gizon azkar, zintzo eta deusen beldurrik gabeko bat zarela.

PETRITO: Hain minki gutiziatzen zaituenak zer egin behar du zuri bere egiazko amodioaren frogatzeko?

BERONIKA: Zoaz gaur berean elizarat, deabru itsusienaren idurirat aldatu. Han ikusiko duzu gizon bat tortxa bat eskuan, otoitzean, hil-kutxa baten aintzinean. Hari kasurik egin gabe, gau guzia ibil zaitez eliza barnean, harat, hunat, gibelean xilintxa bat inarosten duzula...

PETRITO: Ez da batere lan gaixtoa: gehiago ere egin nezake irriño bakar baten ardiesteko.

BERONIKA: Zoaz, galdegin dizudanarekin aski izanen da.

IV

Silben, Domingo, Petrito

Silbenek kutxa bat ahal bezala karreatzen du. Bere kutxaren barnean etzan orduko, bigarrena Domingo sartzen da ibilera segurrenean: tortxa bat pizturik belaunikatzen da kutxaren ondoan eta hasten da otoitzean. Hainbertzenarekin atea zabaltzen da zanpez, urrats pizu batzuek harrigarriko arrabotsa egiten, eliza guzia airatzen dutenak, itzal bat aintzinatzen aldarerat buruz ez zuena ez gizon, ez kabala itxura, tilin, tilin, xilintxa bat bazerabila, Petrito.

Zer ote den hori: Silbenek estalgia altxaturik burua ateratzen du eta haren harritzea ikusiz bere aldean norbeit argi bat eskuan eta haratago rnamu beltz adar haundidun bat zanpa zanpa hari buruz joaki.

Domingo ere ez da guti izitzen hila pizturik, kutxatik agertzen zaionean eta bertzalde deabru bat hurbiltzen ikusten duelarik.

Deabru bera, ez dea kalupan ihesari emaiten aldareko agerkari edo gertakari ohi ez bezalako horiek lotsaturik. Oihuka eta garrasika ari dira, elgar lasterkatuz bat bertzearen beldurrez elizatik jalgitzean!

Kanpoan elgar ezagutzen dute harriturik!

DOMINGO: To! hi bait hintzan hila?

SILBEN: Eta hi deabrua? Hi berriz hilzaina?

PETRITO: Nolaz gaituk beraz hiruak horrela gertatu molde horietan?

SILBEN: Paregabeko neska bat maite dut eta amodioaren frogatzeko galdegin dit molde honetan plantatzea eta gau guzia horrela iragaitea. Eta zuek?

DOMINGO: Eni ere gauza bera gertatu zait. Itsutuki maite dudanak gau guzia kutxaren ondoan beilatzea eskatu dit.

PETRITO: Zer da deabrukeria hau? Eni aldiz, ene kuttunak xilintxa batekin harat eta hunat ibiltzea manatu dit, harekin ezkontzeko baimena horrela merezituko nuela.

SILBEN: Ez duzue uste, presuna beraz mintzo gabela?

DOMINGO: Bai, gutaz ongi trufatu da!

V

Hiru mutikoak eta Beronika

Bat batean Beronika sartsen da eta irrino batekin:

BERONIKA: Gaixo pika-buztanak! Hiruak berdin trixteak... Hiruak berdin beldurtiak! Ahoz bai azkar, mihiz bai zintzo eta zerbait eskatu orduko, ez kapable obratzeko!... Zuek, ez zarete gai ene senar izateko! Ah, ez! Zoazte beraz ene begien bixtatik... Zoazte antzara ferratzera!

